

ONARPEN PROZESUKO BAREMOA

LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK	Puntuak
Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea	Geh. 3
Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea -Udal titulartasuneko ikastetxeetan: -Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan). -Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan. -Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan: -Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean. -Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean.	Geh. 10 10 2 10 2
Familia-unitatearen per capita errenta -Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada (8.288 eurokoa edo txikiagoa) -Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta horren hiru laurden adinakoa edo txikiagoa bada (8.288 euro baino handiagoa eta 12.432 eurokoa edo txikiagoa) -Lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada (12.432 euro baino handiagoa eta 16.576 eurokoa edo txikiagoa) -Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa (16.576 euro baino handiagoa)	Geh. 3 3 2 1 0
Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek -Ikaspostua eskatzen duen haurrak desgaitasuna badu. -Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoek edo legezko ordezkariak edo anai-arrebek desgaitasuna badute.	Geh. 2,5 2 0,5
Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada	Geh. 1. 1
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egiten badute.	0,8
Legez familia ugariko kide izatea	0,8
Haurra familia-harrerako egoeran egotea	0,8

Familia gurasobakarra izatea	0,8
Erditze anizkoitzean jaioa izatea	0,8
IRIZPIDE OSAGARRIA (Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)	
Familia orokorrak Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzari alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa aratuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1
Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean eta Gizarte Segurantzari alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa aratuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1